



Genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena

**Foru Arau proiektua,
Gipuzkoako Lurralde Historikoko
zerga sistema Euskal Zuzenbide
Zibilari buruzko ekainaren
25eko 5/2015 Legea
egokitzekoa.**

1. Sarrera

Txosten honen helburua da martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aurretiazko

Informe de evaluación previa de impacto de género

Proyecto de Norma Foral de adaptación del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del



ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

2. Arau aldaketak

2015eko urriaren 3an, indarrean jarri zen ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. Autonomia Estatutuak 10. artikuluko 5. apartatuan aitortzen dizkion eskumenak erabiltza onartu zuen Eusko Legebiltzarrak lege hori, bertan

impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

2. Modificaciones normativas

Con fecha 3 de octubre de 2015 entró en vigor la Ley 5/2015, de 25 de junio de Derecho Civil Vasco. Esta ley ha sido aprobada por el Parlamento Vasco en uso de sus competencias conforme el artículo 10, apartado 5, del Estatuto de Autonomía que



ezartzen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen beregaina dela Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen Zuzenbide Zibila, forala eta berezia, idatzizkoa zein ohiturazkoa, artatu, aldatu eta garatzea, bai eta hura indarrean izango den lurralde eremua finkatzea ere.

Lege horren aurrekaria uztailaren 1eko 3/1992 Legea da, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kasuan, azaroaren 26ko 3/1999 Legea, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko Legea Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez aldatzen duena.

Begi-bistakoa da Zuzenbide Zibilak inplikazio nabarmenak dituela Tributuen Zuzenbidean, eta, horrela, Euskal Zuzenbide Zibilaren legeak berak hirugarren xedapen gehigarrian dio lurralde historikoetako foru organoek, emanda dauzkaten eskumenak baliatuta, beren zerga arauak egokitu behar dituztela lege honetan erregulatutako

señala que es competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco la conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil, foral y especial, escrito o consuetudinario, propio de los territorios históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

Esta ley tiene su antecedente en la Ley vasca 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral del País Vasco y en lo que se refiere al Territorio Histórico de Gipuzkoa en la Ley 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa.

Resultan evidentes las implicaciones que el Derecho Civil tiene en el Derecho Tributario y así la misma ley de Derecho Civil Vasco en su disposición adicional tercera dispone que los órganos forales de los Territorios Históricos procederán, en el uso de sus competencias, a la acomodación de las respectivas normas tributarias a las instituciones



instituzioetara.

Bestalde, Ekonomia Itunak xedatzen du lurralde historikoetako erakunde eskudunek ahalmena dutela beren zerga araubidea nork bere lurraldean mantendu, ezarri eta arautzeko.

Horregatik guztiagatik, eta 5/2015 Legean ezarritakoa betetze aldera, foru arau honen bitartez beharrezko aldaketak sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Herriko Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzeko, eta fiskalitatearen alorrean ere behar den segurtasun juridikoa emateko.

Gainera, nabarmendu behar da foru arau honek Gipuzkoan arautzen dituela aurreneko aldiz “testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren” berezitasun tributarioak; bere konfigurazioan berezia den figura hori ez da ageri Kode Zibilaren sisteman, baina

reguladas en esta ley.

Por otra parte, el Concierto Económico atribuye a las instituciones competentes de los Territorios Históricos la competencia para mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, su régimen tributario.

Por todo ello, y en cumplimiento del mandato señalado en la Ley 5/2015, la presente Norma Foral tiene por objeto introducir las modificaciones necesarias para adaptar el sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa a las peculiaridades propias del Derecho Civil del País Vasco y aportar la necesaria seguridad jurídica en el ámbito de la fiscalidad.

Además, conviene destacar que esta Norma Foral regula por primera vez en Gipuzkoa las especialidades tributarias de una figura como es “la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio”, figura peculiar en su configuración y ajena al sistema del Código Civil,



aparteko eragina du bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, eta bai aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan.

Bi titulu ditu foru arauak: "Zerga arauen egokitzapena", eta "Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga araubidea".

I. tituluak –Zerga arauen egokitzapena– aldaketak sartzen ditu oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, eta udal zergetan, eta denak behar-beharrezkoak dira gure zerga sistema euskal legeria zibil berrira egokitzeko.

que sin embargo tiene una especial trascendencia tributaria tanto en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones como en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

El texto consta de dos títulos que son los siguientes: "De la adaptación de las Normas Tributarias" y "Del régimen tributario de las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio".

El Título I, "De la adaptación de las normas tributarias", regula las distintas modificaciones en los Impuestos sobre Sucesiones y Donaciones, Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y Tributos Locales. Modificaciones estas necesarias para la adaptación de nuestro sistema tributario a la nueva legislación civil vasca.



II. tituluak –Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga araubidea– ezartzen du nola zergapetu behar diren herentzia horiek bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta bai aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan.

Bestalde, II. tituluan ere ezartzen da testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziek atxikitzeko obligazioa izango dutela zerga araudiak finkatzen dituen kasuetan, betebegar formal eta material batzuen inguruko xedapen komunak ematen dira, eta bertan artikulua bat jasotzen da ondare sozietateen araubideari buruz.

Laburbilduz, foru arau proiektu honen helburua da Euskal Zuzenbide Zibilean sartutako aldaketan ondorioak eta “Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien” figura berria Gipuzkoako zerga sisteman arautzea. Aldaketa horiek beharrezko egiten dute hainbat zergatan berriro

El Título II, “Del régimen tributario de las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio”, regula la tributación de las citadas entidades tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

Por otra parte, el mismo Título II establece la obligación de retener de las herencias pendientes del ejercicio de un poder testatorio en aquellos casos en que así lo establezca la normativa tributaria, unas disposiciones comunes sobre obligaciones formales y materiales y un artículo en relación al régimen de las sociedades patrimoniales.

Resumiendo, por medio de este proyecto de Norma Foral, se trata de regular en el sistema tributario de Gipuzkoa las consecuencias originadas por cambios en el Derecho Civil Vasco y la introducción de la figura de “las herencias pendientes del ejercicio de un poder testatorio”. Estos cambios requieren



zehaztea sortzapena eta subjektu pasiboen kontzeptua, herentzia bidezko eskurapenen metaketa berriro kalkulatzea, eta komisarioaren figurak dituen betebeharrak sartzea. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan, zergadun berriak dira testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak. Orain arte herentzia horiek onartu gabeko herentzia gisa aitortu ziren, eta oinordeko bakoitzari zegokion partaidetzaren proportzioan egozten ziren.

3. Genero eragina

3.1. Genero egokitasuna

Proiektuaren hartzaile multzoa dira testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, eta herentzia jakin batzuk jasotzen dituzten pertsona

nuevas redacciones en la determinación del devengo y sujetos pasivos de varios Impuestos, así como nuevo cálculo de la acumulación de adquisiciones hereditarias y la inclusión de las obligaciones de la figura del comisario. En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, se establece como nuevo contribuyente a las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, cuando anteriormente se declaraba como herencia yacente y se imputaba en proporción de la participación atribuible a cada heredero.

3. Impacto de género

3.1. Pertinencia de género

El grupo destinatario final del proyecto son las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio y las personas físicas



fisikoak.

perceptoras de cierto tipo de herencias.

Hortaz, eta xedapen normatiboak eragina duenez emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Por tanto, y como la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2. Valoración del impacto de género

3.2.1. Abiapuntuo egoera

3.2.1. Situación de partida

EUSTATEk egiten duen “Errenta pertsonal eta familiarra”-ren datuen arabera, 2013an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.076 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 24.680 eurokoa (%38,9ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,8koa da (8.972 euro eta 15.167

Según los datos de la “Renta personal y familiar” que elabora el EUSTAT, en 2013 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.076 euros y la de los hombres de 24.680 euros (brecha del 38,9%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,8% (8.972 euros frente a 15.167, dado el menor



euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murrizagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %25ak ez du 1.500 eurorik ere irabazten urtean, gizonezkoetan talde hori % 14,1ekoa den bitartean. Emakumeen erdia baino gehiago (%52,5) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %29,1 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoek baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuen arabera (2015eko abendua), emakumeen okupazio tasa %45,4koa da Gipuzkoan, gizonezkoena %55,7koa den bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeak

acceso a empleo y la discriminación laboral). El 25% de las mujeres de Gipuzkoa no ganaba ni 1.500 euros al año, frente a 14,1% de los hombres. Más de la mitad (52,5%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 29,1% de los hombres.

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos de la Población en Relación con la Actividad de EUSTAT, en diciembre 2015, la tasa de ocupación de las mujeres en Gipuzkoa es de 45,4% frente al 55,7% de los hombres. Respecto a la población en situación de



dira kolektibo horren %47,3 Gipuzkoan.

Era berean, emakumeak dira nagusi diru-sarrerak bermatzeko errentan titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2016ko otsaileko datuen arabera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) jasotzen duten pertsonen %56,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Pobrezia eta gizarte-desberdintasunen inkesta, 2012" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan.

desempleo, las mujeres representan en Gipuzkoa el 47,3% de dicho colectivo.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la renta de garantía de ingresos. Así, y según los datos de Lanbide, en febrero de 2016 el 56,8% de las personas receptoras de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en Gipuzkoa son mujeres.

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2012" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. La incidencia de la pobreza real en la CAE resulta de hecho tres



Pobreziaren intzidentzia erreala hiru aldiz handiagoa da EAEn, hain zuzen ere, emakume baten ardurapean dauden etxeetan (%11,1 eta %3,7, hurrenez hurren).

2012ko "Pobreziari eta bazterketa sozialari buruzko inkesta" lanak eskainitako datuen arabera, emakume bat buru duten etxeetako pobreziaren intzidentzia askoz handiagoa da Gipuzkoan ere, pertsona nagusi gisa gizonezko bat duten etxeekin konparatuz gero. Izan ere, emakume bat buru duten etxeak etxe guztien %29,6 besterik ez diren arren, pobrezia erlatiboko egoeran aurkitzen diren etxe guztien %40,2 eta bazterketa sozial larri nahiz konpentsatuko egoeran aurkitzen diren etxeen %46 izatera iristen dira.

3.2.2. Generoaren ikuspuntutik aintzat hartu beharreko neurrien identifikazioa

Foru arau proiektuak dakarren aldaketa nagusia da araudian

veces superior en hogares encabezados por una mujer (11,1% frente a 3,7%).

En Gipuzkoa, y según los datos de la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa" (2012), la incidencia de la pobreza en aquellos hogares que están encabezados por una mujer es también muy superior a la correspondiente a los hogares que cuentan con un hombre como persona principal. De hecho, aunque los hogares encabezados por mujeres representan solo el 29,6% de los hogares, suponen el 40,2% de todos los hogares en situación de pobreza relativa y el 46% de los que se encuentran en situación de exclusión severa o compensada.

3.2.2 Identificación de medidas a considerar desde el punto de vista de género

El cambio más importante que se contempla en el Proyecto de Norma



sartzen duela testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga araubidea; hau da, ezartzen du nola zergapetu behar diren herentzia horiek bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta bai aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan.

3.2.3 Proposatutako aldaketen ondorioak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan, zergadun berri gisa agertzen dira testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak. Orain arte herentzia horiek onartu gabeko herentzia gisa aitortu ziren, eta oinordeko bakoitzari zegokion partaidetzaren proportzioan egozten ziren. Nahiz eta horrek eragina izan dezakeen bi zerga horien progresibotasunean, ezin da esan zerga-bilketa handitzea edo txikitzea ekarriko duenik, horretarako

Foral es la inclusión del régimen tributario de las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, que regula la tributación de las citadas entidades tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

3.2.3 Efectos de las modificaciones propuestas

En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, se establece como nuevo contribuyente a las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, cuando anteriormente se declaraba como herencia yacente y se imputaba en proporción de la participación atribuible a cada heredero. Esto puede afectar a la progresividad de los dos impuestos mencionados, pero no se puede determinar si aumentará o disminuirá la



bestelako arrazoiak hartzen baitira kontuan, hala nola testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziagatik sartu behar den zenbatekoa, eta herentzian parte hartzen duten pertsonen oinarri likidagarria. Gainera, foru arau proiektua aplikagarria izateko, nahitaezkoa da tartean herentzia bat izatea, testamentugileak komisario bidezko oinordetza aukeratzea, eta herentzia horren testamentu-ahalordea erabili gabe egotea.

3.2.4 Genero eraginaren balorazioa

Euskal Zuzenbide Zibilaren figura berri hauek 2015eko urriaren 3an jarri ziren indarrean, eta aplikagarriak izango dira testamentugilea hiltzean gauzatzen diren testamentu berrietan. Hortaz, oraingoz ez daukagu daturik arauketa berriak zer aldaketa ekar ditzakeen adierazteko.

recaudación, porque depende del importe a integrar por la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio y de la base liquidable de las personas que participan en la herencia. Además, para ser de aplicación este proyecto de Norma Foral, debe de haber una herencia, el testador tiene que haber optado por la sucesión por comisario y todavía la herencia debe hallarse pendiente del ejercicio del poder testatorio.

3.2.4 Valoración del impacto de género

Al tratarse de nuevas figuras del Derecho Civil Vasco, que entraron en vigor el 3 de octubre de 2015, y estas nuevas figuras han de contemplarse en nuevos testamentos, que se harán efectivos con el fallecimiento de la persona testadora, no hay datos que puedan indicar los cambios que originará la nueva regulación.



Foru arau proiektuak gai hauek arautzen ditu Euskal Zuzenbide Zibilean sartutako berrikuntzetarako:

- Sortzapena.
- Subjektu pasiboak.
- Uneko eraginkortasunez egindako oinordetza-itunen bidez jasotako herentziaren metaketa.
- Komisarioaren betebeharrak

Behin arau berria indarrean jartzen denean, aurkezten diren aitorten ereduak aztertzean, hala nola 670 eredu (oinordetzen gaineko zergaren aitorten-likidazioa), 109 eredu (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga), 714 eredu (aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga), eta komisarioaren figurari buruzko komunikazioak eskuartean hartuta, sexuaren arabera datuak izango ditugu arau aldaketa honek duen eragina aztertu eta neurtzeko.

Beraz, ondorioztatu dezakegu une

El proyecto de Norma Foral regula para las novedades introducidas en el Derecho Civil Vasco:

- El devengo.
- Los sujetos pasivos.
- La acumulación de herencia por pactos sucesorios de presente.
- Las obligaciones de la figura del comisario.

Con la entrada en vigor de esta nueva norma y la presentación de los modelos, 670 (declaración liquidación del Impuesto sobre Sucesiones), 109 (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas), 714 (Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas) y las comunicaciones de la figura del comisario, obtendremos los datos desagregados por sexo necesarios para calibrar y estudiar el impacto de este cambio normativo.

Por tanto, podemos concluir que por



hauetan ez dugula genero eragina baloratzeko daturik.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez:

Proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorra ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

Donostia, 2016ko apirilaren 27a

el momento carecemos de datos para efectuar una valoración del impacto de género.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje:

Se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado ni aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria, ni aquellos otros que deban respetarse por estar expresamente definidos en otras normas del ordenamiento jurídico.

San Sebastián, a 27 de abril de 2016

Sin./Fir.: AZTERLANETAKO TEKNIKARIA /TÉCNICO DE ESTUDIOS